

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## García Malo kontseilaria izango da Ezintasunaren Nafarroako Batzordeko buru

*Alor horretako elkarte batzuk partaide dituzten gizarte zerbitzuen programetarako Nafarroako Gobernuaren kontsultarako organoa da*

Jueves, 19 de mayo de 2011

María Isabel García Malo Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria izan da buru, gaur goizean, Ezintasunaren Nafarroako Batzordea eratzeko bileran. Organo hori Foru Administrazioako funtzionarioek eta ezintasunak dituzten pertsonen elkarteetako ordezkariak osatzen dute, eta bi aldeek kide kopuru bera dute.



García Malo kontseilaria da Ezintasunaren Nafarroako Batzordearen buru

Nafarroako Gobernuak ezintasunak dituzten pertsonentzako eskaintzen dituen laguntza programak antolatu eta burutzeko orduan izaten diren kontsultak egiteko batzordea da. 2010eko azaroan onetsi zen Ezintasunaren Plan Integraleko "gizarteko parte-hartzea" atalean dago jasota batzordearen eraketa. Organoaren osaera eta eskumenak [2011ko apirilaren 4ko foru dekretu batean](#) daude araututa.

Gaur goizeko saioan, Ezintasunaren Behatokia ere eratu da, Batzordearen mendekoa izango dena, eta ezintasunen bat duten pertsonekin loturiko informazioa biltzeaz eta zabaltzeaz arduratuko da, baita alor horretan burutzen diren laguntzarako ekintzen jarraipena egiteko ere.

Batzordearen buru María Isabel García Malo Gizarte Gaietako kontseilaria da. Lehen presidenteordea Javier Miranda Erro da, Nafarroako elbarritu-ordezkarien batzordeko (Cormin) presidentea, eta bigarren presidenteordea Marta Álvarez Alonso, Gizarte Gaietako eta Garapenerako Lankidetzako zuzendari nagusia.

Foru Erkidegoko Administrazioaren ordezkari hauek osatzen dute batzordea: Begoña Rodríguez Marcos Nafarroako Mendekotasun Agentziako zuzendari kudeatzaileak, Pilar Elcarte Elcarte ANDEPeko Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasuna Saihesteko alorreko zuzendariordeak, José Luis Ruiz Ciruelos Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak, M<sup>a</sup> Luz Munárriz Desojok, Carmen Garde Gardek eta Jesús M<sup>a</sup> García Antón Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioko presidentek.

Corminen izenean, hauek dira batzordeko kideak: Javier Lagunas, M<sup>a</sup> Antonia Alonso Medrano, Valentín Fortún Arriezu, Miguel Garayoa Elía, Blanca Idoate Iribarren, Francisco Fernández Nistal eta Belén Mateo